



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

AUZO: GURUTZE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2021-10-04	19:00	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Arroxa Lizaso, Iosune Cousillas eta Eneritz Arbelaiz

Herritarrak: 4	Euskaraz: 3		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 1		Gizonezkoak: 2	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 0	51-65 urte: 2	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurrekontuak osatzeko prozesuan egongo ditugun auzo batzarren egitura azaldu da.
2021 urtea	Urteko balorazioa egin da, baita legegintzaldiko helburu nagusien jarraipena ere.
2022ko aurreikuspena	Aurrekontuen lehen zirriborroa aurkeztu da.
Auzoa:	Bidegorriaren proiektua aurkeztu da. Berpiztu planaren bidez lortu den finantzaketa azaldu da eta planoen bidez trazatua erakutsi da. Bidea argiztatua egongo dela azaldu da. Bizilagun batek aipatu du errepide bazterretik espaloia nahi duela, ez bidegorria. Berak eskatu izan duena espaloia dela. Erantzun da bideragarritasun urbanistikotik aztertuta aurkeztu izan dela beti bidegorria eta orain gauzatzeko aukera sortu dela, finantzaketa lortu delako. Beste batek aipatu du bidegorriaren jarraipena Legarrea kalera izanik, Frailen bidean dagoen trafikoa antolatu egin beharko dela, trafiko handia dagoela gaur egun. Internetari dagokionez, banda zabalaren inguruko baserria proiektua azaldu da. Taxibusa: kontratu berriarekin larunbatetan ere zerbitzua emango da baina dei bidez. Abuztuan ere zerbitzua egongo da.



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

Beloaga: azken fasea egingo da, bisitagarri izateko.

Arkaleko bideko obrak orain hasiko direla aipatu da. Hilabete batean errail bat zabaltzea aurreikusten da.

Uralita: Garbigunean dagoen zerbitzuaren inguruan herrian zerbitzu hori dagoela ez dela zabaldu aipatu da. Komunikazioa hobetu behar da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
bilera ongi gidatu da	9
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,67
Auzotar kopurua	2,33
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	5,33
Saioa probetxugarria izan al da?	7,67
Egunaren egokitasuna	7,67
Orduaren egokitasuna	9
Lekuaren egokitasuna	9